



Gure Planeta Gure Etxea

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa

DBHko 1. maila



Irakasleentzako ikas-egoeraren gida

Inplikaturiko ikasgaiak:

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa

Irakaslea: Jonan Gomez Barrenetxea

Saio kopurua:

16 saio

Ikas-egoeraren markoa: Gure Planetan, orokorrean, gaur egun gertatzen den zenbait arazo ekosozial aukeratu eta aztertuko ditugu ikasleek arazo ekosozial horiei erantzuna eman diezaieten.

A. Testuingurua:

Arazoa testuinguru sozialean, beraz, pertsonalean, eta baita ikas-ingurunean kokatzen da. Ikastolako 2030 Agenda-planan, zenbait GJHtan, arazo ekosozial desberdinei eragiten dieten ekimenak zehaztuta ditugu.

Ikas-egoera honek Lauro 2030 Agenda-planan zehaztutako hainbat ekimenekin harremana du, ikas-egoera gure testuinguruan kokatuz.

Lauro 2030 Agenda-planan, 4. GJHan, KALITATEZKO HEZKUNTZAn, helmuga hau zehaztuta dugu: **4.7 Ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi-estilo jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapenerako, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasunaren baloraziorako.** Helmuga hau lortzeko, 4.1 ekimena lantzen dugu: **4.1 Etapa guztietako ikasketa-planetan eta kurrikulumean GJHak txertatzea, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren irizpideei jarraituz.**

Ikasleek aukeratu, aztertu eta landuko dituzten arazo ekosozialek 2030 Agendako oinarritzko elementuren batekin edo gehiagorekin harremana izango dute: **Pertsonak, Planeta, Oparotasuna, Bakea edota Aliantzak.** Hau dela eta, proiektuak Garapen Jasangarrirako Helburu bati edo gehiagori eragingo dio, bai testuinguru hurbilekoa zein orokorrekoa izan.

Lauro 2030 Agenda-planako 9. GJHko 9.4 helmuga landuko dugu: **9.4 Ikastolako azpiegiturak modernizatzea, jasangarriak izan daitezen, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabiliz eta teknologia eta prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiliz.** Horretarako ekimen hauek garatuko ditugu: **9.2 LHko ikasleek ChromeBook eta DBH eta Batxilergoko ikasleek iPada ikasketa tresna bezala erabiltzea eta 9.8 Ikastolako pertsonen lanen erakusketak egiteko IKT eta Internetez baliatzea.**



Ikasleek euren zirriborroak eta irudiak egiteko, Plastika gelan ditugun erabilitako orriak berrerabiltzeko aukera izango dute, Lauro 2030 Agenda-planako 12. GJHan zehaztuta ditugun bi helmuga hauek garatuz: **12.5 Nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebentzio, murrizketa, birziklatze eta berrerabilpen-jardueren bitartez. 12.8 Ikastolako pertsonak beharrezko informazioa eta ezagutzak badituztela berrabiltzea, garapen jasangarrirako eta naturarekin bat datorren bizi-estiloa edukitzeko.** Helmuga hauek lortzeko, 12.3 ekimena lantzen dugu: **12.3 Hondakinen kudeaketa jasangarria egitea: plastikoa, papera eta kartoia, pilak, konposta eta antzerako hondakinen birziklapena eta berrerabilpena bultzatuz.**

Ikasleek aukeratutako arazo ekosozialen arabera, **ikas-egoeran Garapen Jasangarrirako Helburu desberdinak landuko ditugu:**



B. Abiapuntua:

Landuko ditugun egoera ekosozialak ikasleek eurek aukeratuko dituzte, testuinguru hurbilari edo Gure Planetari orokorrean eragiten dietenak izan daitezkeelarik. Aukeratutako arazo ekosozialek 2030 Agendako oinarritzko elementuren batekin edo gehiagorekin harremana izango dute: **Pertsonak, Planeta, Oparotasuna, Bakea edota Aliantzak.**

C. Azken ekoizpena:

Ikasleei, aztertutako arazo ekosozialari buruzko ekoizpen desberdinak sortzeko aukera emango zaie: lortu diren ondorioak publiko jakin batekin partekatzea, azalpen baten bidez; erakusketa bat antolatzea eta, gidari moduan, azaltzea; informazio-liburuxkak egitea, artea bitarteko gisa erabiliz; gizartean hausnarketa eragingo duten aldarrikapen-ekintzak egitea; elkartasun-kanpainak diseinatu eta gauzatzea.



Proposamenaren justifikazioa:

A. Proposamenaren xedea:

Proposamen honen xedea egoera ekosozial bati aurre egiteko, gure tokitik egin dezakeguna aztertzea, eta ondorioz, erantzuna ematea da. Bultzatu nahi ditugun ikasketa nagusiak hauek dira: GJHak gure ikaskuntza prozesuetan integratzea beharrezkoa dela, gure aliantzekin edo gizarteko beste edozein talderekin elkarlanean aritzen GJHak lortu ahal ditugula...

B. Argudiaketa kurrikularra: (Taulan)

C. Helburu didaktikoak:

- Artearen Historiako azken garaietan, arazo ekosozialei erantzuteko sortutako zenbait artelan ezagutzea eta aztertzea.
- Irudien oinarritzko ikusizko baliabideak: lerroak, formak, koloreak eta irudiaren konposaketa.
- Irudietan ikusizko baliabideak identifikatzea, sailkatzea eta hauen azterketa egitea, jakin-mina, sentsibiltatea eta errespetua erakutsiz.
- Ikusizko baliabideen erabilera egoera desberdinak adierazteko eta salatzeke.
- Ikusizko baliabideak identifikatzea, sailkatzea eta era egokian erabiltzea irudiak sortzeko.
- Sormen prozesua gauzatzea proposamen pertsonalak eta taldekoak sortzeko, ideiak, sentimenduak eta emozioak modu sortzailean adieraziz eta komunikatuz.
- Sormen prozesuan zehar egindako lanaren autoebaluazioa egitea hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez azken emaitza egokia lortzeko.
- Proiektuan zehar lortutako emaitzekin, aztertutako egoera ekosozialari erantzuteko ekintzak antolatzea lortutako emaitzak azalduz.

**Argudiaketa kurrikularra:**

Funtsezko Konpetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOR AKO KONPETENTZIA (HKK) KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE) KONPETENTZIA DIGITALA (KD) KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKO (KPSII) HERRITARTASUN ERAKO KONPETENTZIA (HK) KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAK O KONPETENTZIA (KAKK)	HKK1 KE1 KD1 KPSII1, KPSII3 HK1, HK3 KAKK1	1. Zenbait adierazpen plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko hartze aktiboaren bidez eta hainbat tresnaren erabileraren bitartez ezagutzea eta baloratzea, genero-isuririk gabe, jakin-mina, sentsibiltatea eta errespetua erakutsiz, pentsamendu kritikoa garatzeko eta ondarea kontserbatu beharra ulertzeko.	1.1. Zenbait produkzio plastiko eta ikusizko artistikoei buruz bereizgarri dituzten elementu nagusiak analizatzea eta pentsamendu kritikoa garatzea, jakin-mina, sentsibiltatea eta errespetua erakutsiz. 1.2. Zenbait produkzio plastiko eta ikusizkoen inguruko testuingurua ezagutzea, baita horren funtzioa eta xedea ere, ahoz eta/edo idatziz deskribatuz, hiztegi espezifiko erabiliz, interesa eta errespetua erakutsiz.	A. Pertzepzioa, hautemate estetiko eta analisia 1. Ondare artistikoa eta kulturala. Ikusizko hizkuntza eta komunikazio a. Helburuak: informazioa, komunikazio a, adierazpena eta estetika. (A1) Ikusizko eta ikus-entzunezko irudiak: irakurketa eta analisia. (A1)



Funtsezko Konpetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOR AKO KONPETENTZIA (HKK) KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE) KONPETENTZIA DIGITALA (KD) KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII) HERRITARTASUN ERAKO KONPETENTZIA (HK) KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAK O KONPETENTZIA (KAKK)	HKK1 KE3 KD1 KPSII3 HK1, HK3 KAKK1, KAKK2	2. Norberaren eta bere gisakoen produkzioak ikertzea, analizatzea eta azaltzea, ondareko produkzio artistikoak eta ondarea osatzen dutenak erreferentzia gisa erabiliz, interesa erakutsiz eta hizkuntza artistikoen ezaugarriak kontuan hartuz, kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinarioa bera elikatzeke.	2.2 Hainbat produkzio artistiko, norberarenak eta bere gisakoenak barne, modu gidatuan analizatzea, munduranzko begirada estetiko irekia garatuz eta aniztasuna errespetatuz.	A. Pertzepzioa, hautemate estetikoa eta analisisa 2. Irudiaren eta ikusizko eta ikus-entzunezko hizkuntzaren elementu formalak. Ikusizko hizkuntza komunikazio-modu gisa. (A2) Ikusizko hizkuntzaren oinarrizko elementuak. Adierazpen-eta komunikazio-aukerak. (A2) Ikusizko elementuak, kontzeptuak eta adierazpen-aukerak: forma eta kolorea. (A2)



Funtsezko Konpetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE) MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA eta ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZARAKO KONPETENTZIA (STEM) KONPETENTZIA DIGITALA (KD) KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKO (KPSII) EKINTZAILETZA-KONPETENTZIA (EK) KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAKK)	KE2 STEM1 KD2 KPSII1, KPSII4, KPSII5 EK3 KAKK3, KAKK4	3. Hizkuntza plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoekin esperimentatzea eta proposamen pertsonalak sortzea, ikerketaren eta praktikaren bitartez, ideiak, sentimenduak eta emozioak modu sortzailean adierazteko eta komunikatzeko, eta hobetzeko gaitasuna, autoestimua eta autokritika jarrera irekiarekin garatzeko.	3.1 Bere ideiak eta sentimenduak esperimentazioaren bidez azaleratzea, norberaren adierazpen-xedeetarako material, tresna, euskarri eta teknika egokiak erabiliz, bere pentsamendu sortzailea eta pertsonala aberastuz. 3.2 Norberaren bizipenak eta munduaren ikuskera sormenez irudikatzea, norberaren imajinaria eta sentsibilitatera joaz, bere mugak gainditzen ahaleginduz, norberaren eta bere gisakoen ezagutza areagotuz, baita bere autoestimua ere.	B. Sorkuntza eta interpretazioa eta C. Orokorrak Bi eta hiru dimentsioko adierazpen grafiko-plastikoaren oinarrizko teknikak. Teknika digitalak eta lehorrak. Arteko erabilera eta adierazpen-ezaugarriak. (B1) Prozesu sortzailearen faktoreak eta etapak: materialak eta teknikak hautatzeko eta bozetoak egiteko estrategiak. (B1) Akatsa hobetzeko eta ikasteko aukera bezala ikustea. (C) Ahalegina helburuak lortzeko metodoa eta bidea. (C) Pentsamendu kritikoa eta dibergentea garatzea. (C)



Funtsezko Konpetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikokoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOR AKO KONPETENTZIA (HKK) KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE) MATEMATIKARA KO KONPETENTZIA eta ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZAR AKO KONPETENTZIA (STEM) KONPETENTZIA DIGITALA (KD) KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKO (KPSII) HERRITARTASUN ERAKO KONPETENTZIA (HK) EKINTZAILETZA-KONPETENTZIA (EK) KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAK O KONPETENTZIA (KAKK)	HKK1 KE2 STEM1, STEM3, STEM5 KD2, KD3, KD4 KPSII3, KPSII4, KPSII5 HK3 EK1, EK2, EK3 KAKK3, KAKK4	4. Kolaborazioko produkzio kultural eta artistikoen diseinuan, elaborazioan, argudiatzean eta zabalkundean parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertenezkiaren zentzua garatzeko.	4.1. Komunikazio-asmoa duten produkzioak modu kolaboratiboan eta sormenez garatzea, prozesu sortzailea planifikatuz eta zenbait rol bere gain hartuz prozesuaren etapetan zehar. 4.2. Proiektu artistikoen elaborazio-prozesua eta azken emaitza erakustea, besteen iritzia baloratuz.	C. Orokorrak Portaera-arauak eta jarrera positiboa proposamen grafiko-plastikoak, diseinukoak hartzean eta sortzean. (C) Akatsa hobetzeko eta ikasteko aukera bezala ikustea. (C) Ahalegina helburuak lortzeko metodoa eta bidea. (C) Aniztasuna baloratzea eta errespetatzea. (C) Enpatia eta ikuspuntu desberdinen balorazioa. (C)

**Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio-adierazleak (irakaslearentzako)****A. Hasierako fasea:**

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
Ikas-egoeraren azalpena egitea.	Ea ikasleek ikas-egoeraren atal desberdinak identifikatzen eta ekarpenak egiten dituzten.	Irakaslearen behaketa.
Gaiari buruzko oinarritzko edukien eta harremandutako irudien azterketa eta azalpenak talde osoko bileran egitea: • Zer dira arazo ekosozialak? • Zer da ekodependentzia eta intredependentzia? • 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH).	Ea ikasleek edukien eta irudien azterketan jakin-mina, sentsibiltatea eta errespetua erakusten duten. Ea ikasleek irudietan ikusizko baliabide nagusiak identifikatzen, sailkatzen eta era egokian aztertzen dituzten. Ea ikasleek irudien azterketan arazo ekosozialak eta GJHak identifikatzen dituzten.	Edukien eta irudien azterketan ikaslearen parte hartzea eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika. Edukien eta irudien azterketa ebaluatzeko errubrika. Edukien eta irudien azterketa ebaluatzeko errubrika.
Arazo ekosozialetan oinarritutako zenbait produkzio artistiko analizatzea adierazten diren arazo ekosozialak eta GJHak identifikatuz.	Ea ikasleek edukien eta irudien azterketan jakin-mina, sentsibiltatea eta errespetua erakusten duten. Ea ikasleek irudietan ikusizko baliabide nagusiak identifikatzen, sailkatzen eta era egokian aztertzen dituzten. Ea ikasleek irudien azterketan arazo ekosozialak eta GJHak identifikatzen dituzten.	Irudien azterketan ikaslearen parte hartzea eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika.



Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
Gaiari buruzko oinarritzko edukiak baliabide desberdinen bitartez aztertzea: • GJHei buruzko eta krisialdi klimatikoari buruzko UN Etxearen bideoak. • 2030 Agendako GJHak eta helmugak. • Lauro Ikastolako 2030 Agenda-plana.	Ea ikasleek gaiaren atal desberdinak identifikatzen eta ekarpenak egiten dituzten.	Irakaslearen behaketa.

B. Garapen fasea:

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
Taldeka arazo ekosozialak bilatzea, aztertzea, informazioa biltzea eta aukeratzea. Arazoan oinarritutako proposamen artistikoa planifikatzea: • Arazo ekosozialaren deskribapena. • Kokapen geografikoa. • Ekodependentzia eta intredependentziarekiko harremana. • 2030 Agendako bost elementu nagusiak. • GJHekiko harremana.	Ea ikasleek gaiaren atal desberdinak identifikatzen eta ekarpenak egiten dituzten.	Irakaslearen behaketa. Ikasle taldeen apunteak, anotazioak eta zirriborroak.
Ikasle talde desberdinek aukeratutako arazo ekosozial desberdinei buruzko argitalpenak, bideoak, proposamenak aztertzea eta planifikatutako proposamenekin alderatzea POI metodologiaren <i>Konparatu eta kontrastatu</i> pentsamendu trebetasuna landuz.	Ea ikasleek gaiaren atal desberdinak identifikatzen eta ekarpenak egiten dituzten.	Irakaslearen behaketa. Ikasle taldeen apunteak, anotazioak eta zirriborroak.
Ikasle talde bakoitzak egindako proposamen artistikoaren azalpen dokumentua idaztea eta Showbiera bidaltzea. Azalpenak atal hauek izango ditu: • Proposamen artistikoaren izenburua. • Arazo ekosozialaren deskribapena. • Kokapen geografikoa. • Ekodependentzia eta intredependentziarekiko harremana. • 2030 Agendako bost elementu nagusiak eta GJHekiko harremana. • Adieraziko dugun iritzia. • Baliabideak eta materialak.	Ea ikasleek proposamen artistikoaren azalpenaren atal desberdinak era egokian azaltzen egiten dituzten.	Proposamen artistikoaren azalpen dokumentua.



Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
Taldeko proposamen artistikoaren hastapenak.	Ea ikasleek euren ideiak eta planteamenduak esperimentazioaren bidez azaleratzen dituzten.	Ikasleen planteamendua eta zirriborroak eta planifikazioa ebaluatzeko errubrika.
Hasierako ideiak, zirriborroak eta proposamenari buruzko anotazioak.	Ea ikasleek euren adierazpen-xedeetarako material, tresna, euskarri eta teknika egokiak erabiltzen dituzten euren pentsamendu sortzailea eta pertsonala aberastuz.	Ikasleen planteamendua eta zirriborroak eta planifikazioa ebaluatzeko errubrika.
Prozesuan zehar egindako lanaren ebaluazioa eta autoebaluazioa.	Ea ikasleek euren taldeko eta euren kideen produkzio artistioak munduranzko begirada estetiko irekia garatuz eta aniztasuna errespetatuz modu gidatuan analizatzen eta identifikatzen dituzten.	Ikasleen parte hartzea eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika. Ikasleen planteamendua eta zirriborroak eta planifikazioa ebaluatzeko errubrika.
Sormen prozesuaren ebaluazioaren ondoren, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea.	Ea ikasleek euren bizipenak eta munduaren ikuskera sormenez irudikatzen dituzten eta euren mugak gainditzen ahalegintzen diren.	Ikasleen planteamendua eta zirriborroak.
Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza lantzea.	Ea ikasleek proiektu artistikoaren elaborazio-prozesua eta azken emaitza era egokian lantzen dituzten.	Ikasleen planteamendua, zirriborroak eta azken emaitza.



C. Azken fasea:

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
Portfolioak digitala egitea.	Ea ikasleek proiektu artistikoaren elaborazio-prozesua eta azken emaitza era egokian erakusten dituzten.	Ikasleen portafolio digitala: planifikazioa, zirriborroak, azken emaitza eta sormen prozesua ebaluatzeko errubrika.
	Ea ikasleek portfolio digitala egiteko baldintzak betetzen dituen.	Ikasleen portafolio digitala: baliabide digitalen erabilera ebaluatzeko errubrika.
Proposamen artistikoa eta proiektua emaitza Ikastolan aurkeztea eta zabaltzea.	Ea ikasleek komunikazio-asmoa duten produkzioak modu kolaboratiboan eta sormenez garatzen dituzten, prozesu sortzailea planifikatuz eta zenbait rol euren gain hartuz prozesuaren etapetan zehar.	Ikaslearen parte hartzea, azalpenak eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika.
	Ea ikasleek proiektu artistikoaren elaborazio-prozesua eta azken emaitza era egokian erakusten dituzten eta besteen iritzia baloratzen duten.	Ikaslearen parte hartzea, azalpenak eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika.



Metodologia:

A. Printzipioak (IDU, modelo pedagogikoa...):

Ikas-egoeran planteatutako arazoen ebazpena epe ertaineko proiektuaren bitartez burutuko dugu. [PBI Proiektuen Bidezko Ikaskuntza](#) aplikatuko dugu epe ertaineko proiektua burutzeko.

Proiektuaren beharrianen arabera, **ikasketa kooperatiboaren** estrategiak erabiliko ditugu.

Proiektuan **Ikasketa Zerbitzuaren** metodologia aplikatuko dugu, lortutako emaitzak erakusketa, argitalpen eta beste modu batzutan zabalduko baititugu, gure etapa edo beste etapetako ikasleentzat eta ikastolarako erabilgarriak izan daitezen, eta guk sortutako lanak besteengan eragina izateko.

Irakurketa: ikaslaroaren helburuak eta edukiak lantzeko [plastikagela.com](#) arloko webgunea erabiliko dugu, beraz, bai hizkuntza artistikoa barneratzeko, bai kontzeptuak argitzeko, irakurketa ezinbestekoa izango da. Webgunean bertan, gaiarekin harremandutako idatzizko informazioarako estekak ere izango dituzte irakurtzeko eta edukien inguruko informazioa bilatzeko eskatzen zaienean irakurketa ere landuko da.

Ikasleei informazioa eta ezagutza eskuratzeko baliabide desberdinak emango zaizkie, hala nola, testuak, fitxak, agindu laburrez osatutako urratsak, aurkezpenak, ikusizko eskemak eta bideoak. Ikasleen egoera, beharrian eta interes desberdinak kontuan izanik, baliabideak egokituko dira, beti ere, ikaslearen motibazioa eta ikasteko gogoia indartze aldera.

Gai desberdinak aztertzeko, ahal den neurrian, aurreko ikasturteetako ikasleen lanak erabiliko dira, bai marrazkiak, irudiak, argazkiak zein bideoak.

Aniztasunaren trataera: diagnostikoren bat duen ikaslearen kasuan, diagnostikoaren arabera egokitzapenak egingo zaizkio, Eusko Jaurlaritzak emandako jarraibideak eta Ikastolako Orientazio Departamendutik emandakoei jarraituz.

Pentsamenduan Oinarritutako Ikaskuntza: ikas-egoera honetan Pentsamenduan Oinarritutako Ikaskuntzaren *Konparatu eta kontrastatu* pentsamendu trebetasuna landuko dugu.

B. Antolakuntza:

Saioak Plastika gelan izango dira, ikasleak hiru-lau kideko mahai handietan antolatuz, taldeka. Taldekatze mota honek ikasleei modu kooperatiboan lan egiteko aukera emango die, ezagutzak, irudiak, baliabideak eta abar partekatuz. Proposamen artistikoak taldeka burutuko dituzte ikasleek. Taldekatze hauek lagungarriak izango dira kideen artean rol desberdinak banatzeko. Irakasleak bere tokia du ikasgelan, baina mahirik mahai mugituko da ikasle-taldeen lana gainbegiratzuz. Hala ere, ikasleek beti dute irakaslearengana hurbiltzeko aukera.

Eguraldiaren arabera, kanpo-espazioak ere erabiliko ditugu irudiak egiteko.

C. Baliabideak:

iPada: informazioa bilatzeko, arloko [plastikagela.com](#) webgunea kontsultatzeko, Showbie aplikazioa erabiltzeko (zenbait ariketa bidaltzeko, azalpena zein autoebaluazioa egiteko), argazkiak eta bideoak egiteko, SketchBook aplikazioa irudi digitalak egiteko, Keynote aurkezpenak egiteko, Pages dokumentuak idazteko...

Orri zuriak eta kartoi-meheak marrazkiak egiteko. Ikasgelan erabilitako orriak egongo dira ikasleek euren zirriborroak egiterakoan orri horiek berrerabili ahal izateko. Ikasleek euren tresnak ekarriko dituzte: iPada, arkatzak, margoak, zuzenkiak, artaziak, kola eta bestelakoak. Ikasgelan inprimagailua dugu ikasleek euren irudi eta zirriborro digitalak inprimatu ahal izateko.



Ebaluazio-prozesua eta tresnak:

Proiektuan zehar, ebaluazioa modu desberdinetan egingo dugu:

Hasierako fasean:

- Gaiari buruzko oinarritzko edukiak identifikatu, sailkatu eta aztertzerakoan, talde osoko bileran, ikasleen ekarpenak kontuan izanik.
- Arazo ekosozialetan oinarritutako zenbait produkzio artistikoetan ikusizko baliabideak identifikatu, sailkatu eta aztertzerakoan, talde osoko bileran, ikasleen ekarpenak kontuan izanik.

Garapen fasean: sormen prozesuan zehar egindako lanaren bitartez, ebaluazioa eta autoebaluazioaren bitartez, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez. Talde osoko bileran eta ikasleen ekarpenak eta ikasle taldeen, zein banakakoen, planteamendua eta zirriborroak kontuan izanik.

Garapen asean bi dokumentu haue erabiliko dira proiektuaren ebaluazioa egiteko: ***Proposamen artistikoaren azalpen dokumentua*** eta ***Autoebaluaziorako dokumentua***.

Azken fasean: errubrika, ikasle taldeen portafolioa eta proposamen artistikoak antolatzeke egindako irudien ekarpenak kontuan izanik.

Ikas-egoeraren *Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio-adierazleak irakaslearentzako* atalean, jardueretan erabiliko diren ebaluazio-adierazleak eta ebaluazio-tresnak zerrendatuta agertzen dira.

Proiektuaren lehenengo momentutik, ikasleek ebaluaziorako errubrika eta ebaluaziorako irizpideak eskuragarri izanen dituzte bai plastikagela.com webguneko *Gure Planeta Gure Etxea* atalean, bai Showbien, eta ikas-egoeraren 1. jardueran hauen azalpena jasoko dute.



Jardueren sekuentzia garatua (ikasleentzako)

1. Jarduera

Azalpena:

Ikas-egoeraren, helburuen, landuko ditugun konpetentzia espezifikoen, jakintzen, ebaluazio-irizpideen, planteamenduaren eta baliabideen azalpena egitea.

Plastika arloan erabiltzen ditugun plastikagela.com webgunean eta Showbie aplikazioan ikas-egoerari buruzko informazioa erakustea eta azalpenak egitea.

2. Jarduera

Azalpena:

plastikagela.com webguneko **Gure Planeta Gure Etxea** atalean eta SlideShare plataformako PlastikadbhLauro kontuan dugun *Gure Planeta Gure Etxea* aurkezpena irakurri eta talde osoko bileran aztertzea gaiari buruzko oinarritzko edukien azalpenak egiteko:

- Zer dira arazo ekosozialak?
- Zer da ekodependentzia eta intredependentzia?
- 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH).

3. Jarduera

Azalpena:

Arazo ekosozialekin harremandutako irudien azterketa:

- Irudiotan adierazten diren arazo ekosozialak identifikatzea eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin harremantzea.
- ikusizko-baliabideen identifikazioa, sailkapena eta azterketa eginez genero-isuririk gabe, jakin-mina, sentsibiltatea eta errespetua erakutsiz.

4. Jarduera

Azalpena:

Gaiari buruzko oinarritzko edukiak baliabide desberdinen bitartez aztertzea eta arazo ekosozialekin, ekodependentzia eta interdependentziarekin harremantzea:

- GJHei buruzko eta krisialdi klimatikoari buruzko UN Etxearen bideoak.
- 2030 Agendako GJHak eta helmugak.
- Lauro Ikastolako 2030 Agenda-plana.



5. Jarduera

Azalpena:

Taldeka arazo ekosozialak bilatzea, aztertzea, informazioa biltzea eta aukeratzea. Arazo ekosozialari buruzko iritzia adierazteko proposamen artistikoa asmatzea eta planifikatzea gai hauek kontuan izanik:

- Arazo ekosozialaren deskribapena.
- Kokapen geografikoa.
- Ekodependentzia eta intredependentziarekiko harremana.
- 2030 Agendako bost elementu nagusiak.
- GJHekiko harremana.

Proposamen artistikoari buruzko zirriborroak egitea.

6. Jarduera

Azalpena:

Ikasle talde desberdinek aukeratutako arazo ekosozial desberdinei buruzko argitalpenak, bideoak, erakusketak, programak, proposamenak eta antzerakoak aztertzea eta planifikatutako proposamenekin alderatzea.

Jardueran, Pentsamenduan Oinarritutako Ikaskuntzaren metodologia aplikatuko dugu, *Konparatu eta kontrastatu* pentsamendu trebetasuna landuz.

7. Jarduera

Azalpena:

Taldeka arazo ekosozialak bilatzea, aztertzea, informazioa biltzea eta aukeratzea. Arazo ekosozialari buruzko iritzia adierazteko proposamen artistikoa asmatzea eta planifikatzea gai hauek kontuan izanik:

- Arazo ekosozialaren deskribapena.
- Kokapen geografikoa.
- Ekodependentzia eta intredependentziarekiko harremana.
- 2030 Agendako bost elementu nagusiak.
- GJHekiko harremana.

Proposamen artistikoari buruzko zirriborroak egitea.

8. Jarduera

Azalpena:

Ikasle talde bakoitzak egindako proposamen artistikoaren azalpen dokumentua idaztea, eredu bati jarraituz, eta Showbiera bidaltzea.

Aldi berean, taldeko proposamen artistikoa irudikatzearen hastapenak lantzea: hasierako ideiak eta zirriborroak egitea.

Ikasleek azalpen dokumentuaren eredua Showbien izango dute, bertatik Pages aplikazioan deskargatuko dute, eta bete ondoren, Showbiera pdf formatuan bidaliko dute.



Azalpenak atal hauek izango ditu:

- Taldea.
- Taldekideen izen-abizena.
- Proposamen artistikoaren izenburua.
- Gaia.
- Arazo ekosozialaren deskribapena.
- Kokapen geografikoa.
- Ekodependentzia eta intredependentziarekiko harremana.
- 2030 Agendako bost elementu nagusiekiko eta GJHekiko harremana.
- Arazoari buruz adieraziko dugun iritzia.
- Proposamen artistikoaren azalpena.
- Proposamen artistikoa burutzeko beharrezko baliabideak eta materialak.

9. Jarduera

Azalpena:

Taldeko proposamen artistikoa irudikatzearen hastapenak lantzea.

Hasierako ideiak, zirriborroak eta proposamenari buruzko anotazioak: irudiaren ikusizko baliabideak lerroak, formak, koloreak, materialak... aztertzea eta irudian aplikatzea.

10. Jarduera

Azalpena:

Taldeko proposamen artistikoa irudikatzearen hastapenak lantzea.

Hasierako ideiak, zirriborroak eta proposamenari buruzko anotazioak: irudiaren ikusizko baliabideak lerroak, formak, koloreak, materialak... aztertzea eta irudian aplikatzea.

11. Jarduera

Azalpena:

Prozesuan zehar egindako lanaren ebaluazioa eta autoebaluazioa egitea: talde osoko bileran, ikasle talde baten proposamenak eta zirriborroak ikusi eta aztertuko ditugu, eredu bati jarraituz, irudiotan ikusizko baliabideen identifikazioa, sailkapena eta azterketa eginez eta kideen lanekiko errespetua erakutsiz. Zirriborroetan, ikasleek planteatutako hasierako ideiak lortzeko, ikusizko-baliabideak era egokian erabili diren aztertuko dugu.

Ondoren, ikasle-talde bakoitzak bere lanaren autoebaluazioa egingo du, planteatutako hasierako ideiak lortzeko ikusizko-baliabideak era egokian erabili dituzten aztertuz lanaren garapena ebaluatzeko.

Ikasleek autoebaluaziorako dokumentuaren eredua Showbien izango dute, bertatik Pages aplikazioan deskargatuko dute, eta bete ondoren, Showbiera pdf formatuan bidaliko dute.



Autoebaluazioan, landutako ikusizko-baliabideak, lerroak, formak eta koloreak, atal hauek adierazteko egokiak diren aztertuko da:

- Landutako gaia hauteman eta ulertzen da?
- Landutako arazo ekosoziala hauteman eta ulertzen da?
- Kokapen geografikoa hauteman eta ulertzen da?
- 2030 Agendako GJHak erakusten dira?
- Arazoari buruz dugun iritzia hauteman eta ulertzen da?
- Proposamen artistikoa egingarria da?
- Proposamen artistikoak ikuslegoaren erreakzioa eragingo du?

12. Jarduera

Azalpena:

Sormen prozesuaren autoebaluazioaren ondoren, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, planteatutako hasierako ideiak era egokian lortzeko ikusizko-baliabideak era egokian erabiliz.

Zirriborroak egiten jarraitzea.

13. Jarduera

Azalpena:

Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza lantzea.

14. Jarduera

Azalpena:

Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza lantzea.

15. Jarduera

Azalpena:

Portafolioak egitea: hasierako planteamendua eta ideiatik hasita azken emaitzaraino egindako lanaren bilduma osatzea. Egindako lanaren argazkiak eginez, portafolio digitala nola egin azaltzea, ereduak ikusiz eta aztertuz.

Egindako lanaren argazkiak eginez, portafolio digitala Keynote aplikazioan sortzea. Ikasleek portafolio digitalaren aurkezpenaren eredua Showbien izango dute, bertatik Keynote aplikazioan deskargatuko dute, eta osatu ondoren, Showbiera pdf formatuan bidaliko dute.



16. Jarduera

Azalpena:

Ikasleek proposamen artistikoa eta proiektuan jarraitutako prozesua euren kideei eta irakasleari talde osoko bileran aurkeztea. Proiektuaren aurkezpena egiteko portafolio digitala erabil daiteke.

Proposamen artistikoaren arabera, aurkezpena ikastolako beste edozein talderen aurrean aurkeztuko da.